Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA ETA BERRIKUNTZA SAILA

3869

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 2koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena, Nazioartekotzeko Plana 2009ko ekitaldian gauzatzeko laguntzetarako diru-baliabideak gehitu egingo direla jakinarazteko dena; laguntza horiek gogoeta estrategikoari eta kanpoko sustapen-planei laguntzak emateko Nazioartekotze Estrategien Programa (Interbide) garatzen duen 2005eko abenduaren 30eko Aginduan ezarritakoaren esparruan daude.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko abenduaren 30eko Aginduak, kanpoko sustapen-planak eta gogoeta estrategikoa laguntzeko, (Interbidea) Nazioartekotze Estrategien Programa garatzen du.

Agindu horrek dioenarekin bat etorriz, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordeak 2009ko otsailaren 11n emandako Ebazpenaren bidez, honako deialdi hau egin zen: 2005eko abenduaren 30eko Aginduan ezarritako esparruan, nazioartekotzearen gaineko planifikazioa eta gogoeta estrategikoa gauzatzeari dagokion faseko laguntzak emateko deialdia, 2009ko ekitaldikoa.

Programaren barruan egindako eskabide-kopuru osoa kontuan hartuta, eta Industria eta Berrikuntza Saileko beste laguntza-programa batzuen aurrekontubaliabideen arabera, bidezkoa da programan ezarritako laguntzetarako funtsak handitzea, 2009ko ekitaldian.

Horiek horrela, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan ezarritakoari jarraiki -dekretu hori indarrean dago maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera; 4/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta sail horien egitekoak eta jardueraarloak zehazteko dena- eta aipatutako 2009ko otsailaren 11ko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuta, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Laguntza horietara bideratutako funtsak 300.000 euro gehitzea, guztira 580.000 euroko diru-baliabideak osatu arte 2009ko ekitaldian.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA E INNOVACIÓN

3869

RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas para la fase de ejecución del plan de internacionalización, dentro del marco establecido para la Orden de 30 de diciembre de 2005, que desarrolla el Programa de Estrategias para la Internacionalización, de apoyo a la reflexión estratégica y a los planes de promoción en el exterior (Interbide), para el ejercicio 2009.

La Orden de 30 de diciembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo desarrolla el programa Estrategias para la Internacionalización de apoyo a la reflexión estratégica y a los planes de promoción en el exterior (Interbide).

De conformidad a lo establecido en la citada Orden, el Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial dictó resolución, el 11 de febrero de 2009, publicando la convocatoria de concesión de ayudas para la fase de realización de la reflexión estratégica y la planificación de la internacionalización, dentro del marco establecido por el Orden de 30 de diciembre de 2005, para el ejercicio 2009.

Teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas dentro del Programa, y en función de las disponibilidades presupuestarias de otros programas de ayudas del Departamento de Industria e Innovación, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la Resolución de 11 de febrero de 2009 de referencia, en relación con lo dispuesto en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, vigente de acuerdo con lo previsto en la Disposición Transitoria Primera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

DISPONGO:

Primero.– Incrementar en 300.000 euros los fondos destinados a estas ayudas, hasta alcanzar un total de recursos económicos de 580.000 euros para el ejercicio 2009.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu dakioke Eusko Jaurlaritzako Industria eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 2a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.

Segundo.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria e Innovación del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 junio de 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.